



2010-07-07

## **Iurretako herrigunean zehar dabil bizikleta gaineke irakurtaldien maratokia**

Aurretik Otxandio eta Elorrioko kaleetan zehar ere ibili den literatura sustatzeko helburua duen bizikleta maratokia Iurretako herrigunean zehar dabil 10:00etatik. Atarte kultur programazio eta kudeaketa enpresak antolatuta, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako 30 herritan uztailaren 12ra arte martxan izango den Bizi Letra ekimenaren Iurretako hitzordua da 13:30ak arte, gaur.

Iñaki Totorikaguena alkateak zabaldu du ekimena, eta bere ondoren udalbatza osatzen duten gainerako zinegotziak joango dira bizikletara igotzen. Gidariak pedalei ematen dien bitartean, hautatzen duten liburuaren irakurketa egingo dute parte hartzaileek.

Dantzari auzoko plaza dute ekimenean parte hartzen dihardutenek topaleku, eta bertan ipini dituzten mahaietan eskuragai dituzte askotariko hizkuntza eta generoetako irakurgaiak. Besteak beste, *Relato de un Naufrago*, Iurretako aurtengo literatur lehiaketara aurkeztutako ipuinak, edo Sarrionandiaren idatziak irakurri dituzte goizean zehar, zinegotziek herriko elkarte eta ikastetxeen ordezkariak zein norbanakoek. Euren herriak maratokiaren saria eskuratu dezan laguntzeko hainbat herritar dabilta euren kolaborazioa eskaintzen; sariak, 2.500 euroan eta 1.500 euroan baloratutako irakurzaletasuna sustatzeko programa bi izango baitira.

Biztanle eta Bibliotekako bazkide kopuruaren arabera eman duten puntuazioari dagokionez, Basauri, Getxo edo Ermua baino puntu gehiagogaz abiatu da maratokia Iurretan: lau mila biztanlera ailegatzen ez den herrian ia 2.000 bazkide ditu bibliotekak.

Bihar, uztailaren 7an, Zaldibarren izango da Bizi Letra, eta Durangon barikuan (uztailaren 8an).